



PREKARITATEA BADA


IKASTETXEETAN

LAB sindikatuak prekaritateari buruzko inkesta bat banatu du Ipar Euskal Herriko eskola guzietan.

Bi sareak galdezkatu ditugu (publiko eta pribatu [Seaska barne]), 124 erantzun eskuratu ditugu. Erantzunak %60 publikotik eta %40 pribatutik etorri dira.

Sare guzietarik erantzunak ukan ditugu: Iparralde osoa hunkitua izan da lehen eta bigarren mailetan.

* Prekaritateak baditu milaka aurpegi.



Galdezkatuak izan direnen % 80 ak baino gehiagok dio lan baldintza prekarioak badirela ikastetxeetan.



ZUREESKUBIDEAK
FAIS VALOIR TES DROITS



* Nondik dator prekaritatea?

1. Lansari eskasa (70%)

- «Soldata duinak eskaini deneri, erakasle ordezkoei bereziki» Irakasle ordezkoa
- «Oso prekarioa da, bizitzeko adina? emaiten ez duena» AESH, 16 ordu astero
- «Bi lan egin behar soldata duin baten ukaiteko.»

2. Behin behinekotasuna (70%)

- «Badu 3 urte kontratu mugatua naizela eta kontratu mugagabe batek proiektu berri batzuei pentsatzen lagunduko ninduke» «Kontratu mugagabe bat proposatu behar da CAE bat eta gero » « Proiekzio pertsonalik ezin da egin ...»
- «Jende asko CAE pean da, herriei pagak erresten dituelako eta beraz ez da kontratu mugagaberik proposatzen. Hautetsiek diote: «CAE kontratuak desagertarazten baditugu, ez dugu gehiago aurrekondurik jendea kontratatzeko»
- «Lan taldean integratzeko zailtasunak ditugu, urtero mugitzen bagira»

3. Formakuntza eskasa (43%)

Formakuntza bada iduriz (%70k formakuntza bat ukan du, izan langile ala irakasle) alta jende horrentzat prekaritatea formakuntza eskasetik dator ere.

- «Formakuntza eskas dugu elbarritasun bakoitzaren berezitasunen inguruan» AESH
- «Formakuntzek ez dute beharrei erantzuten, legaltasunez soilik proposatuak dira»
- «Formakuntza eskasagatik zalantzak ditut nere lana ongi egiten dudana ala ez.»


Dirudienek formakuntza ez zaie beharrei egokitu. Legezko betebeharrak betetzeko proposatua ote da?

4. Lanaldi partzialak edota zatikatuak (43%)

5. Agertu diren beste prekaritate mota batzuk

- Lan baldintza txarrak (ikasle kopuruak, ikasmaila desberdinak denbora berean...) eta postu eskasa
- Betebeharren edo misioen zehaztasun eskasa (betebeharren biderkatzea, postu fitxa ez argiak ...) «Garbiketak egin beharko ditudala aipatzen didate. Ez naiz lan hontan hasi garbiketak egiteko»
- Langileen eskubideen ez ezagutza edota enplegatzailearen gardentasun eskasa

* Lan baldintza prekarioek zerbitzua baldintzatzen dute % 60arentzat



Halaere, batzuek azpimarratu dute zerbitzuaren kalitatea ez duela baldintzatzen, gehienetan lanpostu horietan diren pertsonak artatsuak direlako eta haurren onerako ari direlako!

«Ez, prekaritateak ez du zerbitzu eskaitzaren maila ahultzen, gehienetan langileak pertsona artatsuak direlako...»

* Zendako lan baldintza txarrek zerbitzua baldintzatzen dute:

1. Kontratu mugatuaren eragina:

- «2 urtez lan egin eta gero ezin dugu gehiago CAErik ukan». «Lan kontratuak berritu beharko litaizke beste modu batean»
- «Talde pedagogikoaren egonkortasuna zalantzan ezartzen du, haurren harreraren eta langileen bizi baldintzen kaltetara»
- «Haur batek beharko luke ber AVSrekin urtea bukatu eta ez aldatu azken honi bere kontratua bukatzen baitzaio»
- «Langilegotza etengabe aldatzen denez, pertsona berrien formatzea etengabe galdetzen du medio guttirekin»



2. Lan postu eskasari lotua:

- «haurren segipena eta proiektuen burutzea ezinezkoa da.»

3. Lan denboraren antolaketaari lotua:

- «Talde pedagogiko, administrazio eta langileen arteko koordinazio eskasa nabaritzen da»

4. Bertzerik:

- «Hori guziak akidura sortzen du eta bizi pertsonalean eragina badu.»
- «5 urte lan hau egiten dudala eta urtero lekuz aldatu naute. Ez dakit zein irizpide erabili duten holako erabakiak hartzeko, baina urtez urte non ariko zaren ez jakiteak zihurgabetasun handia ematen du eta lan horretan segitzeko gogo gutti» AESH bat 16 ordu

* Lan baldintzak hobetzeko ideiak:

1. Ezagupena/berdintasuna

- «Lana eta esperientzia baloratu inplikazioa garatzeko»
- «AVSren lana egiazko ofizio bat bezala ezagutua izan behar da eta ez bizi profesionalaren «ber bultzatzaile bat bezala»
- «Titularizazioak orokortu behar dira»
- «Estatutu bakar bat behar dugu. Lansari eta kondizio berdinak, ber lana eskaintzen dutenentzat.»
«Lan berdina = lansari berdina = lan baldintza berdina»
- «Kontratu mugagabearen diren irakasleentzat CRPE mailako konkurtso berezi bat sortu.»

2. Formakuntza egokitu baten beharra:

- «Formakuntza gehiago: hastapenean eta segitua postuan izan eta, eginmoldeak gaurkotzeko.»

3. Konzertaziorako denbora libratu langileen arteko harremanak hestutzeko:



- «Irakasle taldearekin komunikazioa egon dadin, bilkurak antolatu ikaslearen jarraipena egiteko»
- «Materiala prestatzeko denbora ukan, lan denboran bistan dena»
- «Besteen kezak eta zailtasunak entzuteko denbora libratu»

4. Lansaria:

- «Ordu kopuru minimo bat segurtatu behar da. Ondorioz lansari duin bat.»
- «Lansariaren emendaketa urteetan zehar segurtatu.»

5. Kontratu lagunduen biderkatzea zaindu:

- «Kontratu lagunduak biderkatzen dituzten herriak zaindu»

6. Misiok/betebeharrak argitu:

- Kontratuak argitu eta postu fitzak eraiki

7. Bertzerik

- «ATSEM mugimenduak kudeatuko lituzken estruktura edo elkargo bat imaginatzen ahal dugu?»
- «Lan baldintzak hobetu behar dira, soldata igotzeaz gain, lanerako bidea egiteko diru-laguntzak, formakuntza zehatzagoa, materialgintzan aholkularitza eta baliabide gehiago, ikastetxeen aldetik inplikazio handiagoa (irakasleenaz gain, izan ere, irakasle batzuek oso jarrera egokia dute, baina beste batzuk, aldiz ez hain egokia). Hegoaldean askoz ere baliabide gehiago dituzte: euskarri informatikoak, materiala»

* Zer egiteko prest?

Galdezkatuen erdia prest da zerbaiten egiteko:

1. Ikastetxean mobilizatu (%45)
2. Propaganda banatu (%44)
3. Kolektiboki antolatu (%40)

«Greba egiteko prest naiz sindikatuak elgar adosten badira»



* LABek egin behar lukeena prekaritateari aurre egiteko



1. Lan prekarioa dutenak antolatu (%62)

2. Informazio bilkurak antolatu, sentsibilizatu (%53)

3. Bertzerik:

- «Lan kanpaina bat antolatu inklusioari buruz beste sindikatuekin. 2005ko legetik geroz gai nagusi bat da, baina medioak eskas dira.»
- «Laguntza otoi!! Bakoitza bere xokoan da eta azkenean horregatik prekaritatea garatzen da. Informazioa behar dugu! Ez gira bortxaz ausartzen kontra egitea ondorioengatik»
- «AVS, AESHez ez dute sekulan elgar ikusten, lurralde guzian banatuak

direlako, ondorioz praktika eta jakintzei buruzko trukaketarik ez da posible. Beharbada elkartrukaketa espazio bat sortuz...» pribatuko bigarren mailako AESH bat

- «Laguntzaileak antolatu, lan baldintzak konparatu, eskaera/aldarrikapen bateratuak adosteko»

* Ondorio batzuk

Nahiz eta inkestak adierazitakoa aurreikusten ahal zen, **bilana kezagarri gelditzen da:** galdezkatua izan den %80ak prekaritatea jasotzen edo bere inguruan ikusten du.

Halaere langile eta erakasle horiek **ez dute amore emaiten:** aterabideak proposatzen dituzte; eta % 50 a prekaritatea desagertarazteko kolektiboki antolatzeko prest da.

Zentzu hortarik, heldu den ikasturteetik goiti, LAB Hezkuntza taldeak prekaritatearen kontra borrokatzeko ikastetxeetan, **gogoeta eta lan ardatzak aurkeztuko ditu.**

LAB Hezkuntzak Ikastetxeetako **langile eta erakasleak antolatzeko eta mobilizatzeko** aldarrikapen amankomunen inguruan ahal egina egingen du

* Bizi eskolarreko langileak (EVS), Hezkuntza laguntzaileak (AED), Ahalmen urritasun egoeran diren haurren laguntzaileak (AESH), Lehen mailako eskoletan berezituak diren lurraldeko langileak (ATSEM), kontratu mugagabeak (CDI), kontratu mugatuak (CDD), kontratu lagunduak (CAE)